

BAT



BULLYING-AREN AURKAKO TALDEA

ALEX HALLATT



ALEX HALLATT

BAT



BULLYING-AREN AURKAKO TALDEA

ITZULTZAILEAK:

Itziar Olaizola Corres / Eneko Haritza Garaialde Etxaburu



elkar





BAT TALDEKO KIDEAK



RUTH WILKINSON:

Ruthek gustuko du **BAT** taldearekin egotea, zuhaitzetan gora igotzea eta bizikletan ibiltzea; edo, bestela, marrazkiak egitea.



NANCY WONG:

Nancyri bost axola zaio besteek irakaslearen kuttuna dela esatea: gustuko du ikastea, eta, bereziki, informatika ikastea.



TOBY WILSON:

Tobyri zirika aritzen zaizkio txikia eta lotsatia delako. Nahiago luke etxean egon, bere *Lego*-arekin eraikin zoragarriak egiten.



JAKE BLAKE:

Jakek bere estiloa du, eta berdin zaio modan zer dagoen edo besteek zer esango duten.



RAVI GUPTA:

Ravik irakurtzea maite du, eta eskolan gogor lan egiten du. Nancy ez bezala, atentziorik ez ematen saiatzen da.

BESTEAK

DAVE HOWARD:

Davek uste du *cool* dela, baina ematen du ez dituela ez arropak ez ilea garbitzen.



TREVOR SKUDDER:

Trevor handia eta indartsua da, baina ez du borroka egitea gogoko. Ivanek sarrarazi zuen Daveren taldean.



IVAN CARTER:

Ivanek anaiatzat dauka Dave. Nahiago du Dave dagoen lekuan edo beste edonon egon, etxean baino.





1

BIZIKLETA, AUTOBUSA ETA ESKOLAKO HANDIKIAK



Ezagutzen zuen beste inor baino hobeto moldatzen zen Ruth bizikletan. Gai zen gurpil baten gainean ibiltzeko, derrapatzeak egin, eta hiru lehengusuren gainetik salto egiteko (amak hori egitea erabat debekatu zion arte). Mutilak baino azkarrago ibil zitekeen, baita eskuak heldulekuetan jarri gabe ere.


Ruthek maite zuen bere bizikleta.

Ruthen atsekaberako, bere amak pentsatzen zuen arriskutsuegia zela eskolaraino bizikletaz joatea.

Baina hark ez zekien nolakoa zen eskolako autobus gidaria. Autobusera igotzean, azkar eseri beharra zegoen Kawners andreak azeleragailuari sakatu aurretik; bestela,



azelerazio indarrak atzeko aulkiraino hegan jaurtitzeko arriskua zegoen. Abiadura mantsotzen zue-
nean are okerragoa zen: semaforoa gorri jartzen
zenean hain zakar frenatzen zuen, aurreko para-
brisaren kontra katapultatzen baitzuen ongi heldu-
ta ez zegoen guztia.



Berandu joango balitz bezala gidatzen zuen Kawners andreak, benetan garrantzitsua zen le-
kuren batera berandu joango balitz bezala. Ez zen
hain garrantzitsua. Eskola besterik ez zen, eta inoiz
ez ziren berandu iristen... zoritxarrez.

Autobusaren alde ona zen Ruth Amandaren on-
doan esertzen zela. Ruth baino bi urte zaharragoa
zen hura, eta larunbatetan aldizkari denda batean
lan egiten zuen. Aldizkari mordoa izaten zuen beti.



Denak ziren perfektuak, baina akats bat zuten: ez zeukaten azalik. Amandak pop izarrei buruzkoak zituen gogoko, batez ere Andy Armarda agertzen bazen. Harekiko joera xelebrea zuen, berarekin ezkonduko zela esaten baitzuen. Ruthi barre-

♥ Amanda eta Armarda ♥

garria iruditzen zitzaion. Amandak uste zuen aparta zela, baina Ruthek argi zuen: Amanda haur bat besterik ez zen.


Amandak atzealdean eseri nahi zuen, eta zera esan zuen:



atzealdeko aulkietan eserita zeuden mutilei begira, esan zuen Ruthek:



Ruthek ez zuen ezagutu nahi. Davek ile leun iluna zuen, eta kopetakako ileak aurpegian erortzen zitzaizkion dutxako gortina busti lizun baten moduan. Oso gustuko zituen kaskezurrak, kateak eta kamiseta beltzak.



Dave Trevor eta Ivanekin ibiltzen zen. Trevor eskolako handiena zen. Dorre bat zen, beste guztien gainetik altxatzen zena. Ivan justu kontrakoa zen. Baina tamainan falta zuena, zitalkeriaz ederki osatzen zuen. Bere esku iharrekin harrapa zezakeen edozein izaki torturatzen zuen. Bereziki barraskiloak. Barraskiloak gogoko ez badituzu ere, krudela da haien etxea apurtzea.





Behin batean, bazkalorduan, Ivan haur txiki baten betaurrekoak apurtzen ari zela, Trevorrek geldiarazi egin zuen, eta Ivan sutan jarri zen. Hain gogor jo zuen Trevor sabelean, bere arnas-zotinak jolasleku osoan entzun baitziren.

Davek bakarrik esaten zion Ivani zer egin. Ivanek jainko baten moduan gurtzen zuen, eta Davek gustuko zuen hori. Davek pentsatzen zuen autobuseko erregea zela, eta atzeko aulkiaren erdian eseritzen zen, bere tronua balitz bezala. Trevor eta Ivan alde banatara esertzen zitzaizkion, gorteko bufoi pareta bailiran. Ruthek jantzi xelebreekin irudikatzen zituen, eta irribarre egiten zuen.



Eskolara iritsi bezain laster, Ruth jolaslekua-
ren atzealdeko zuhaitzetara abiatzen zen. Adarrik
baxuenei helduta gora igotzeko bezain altua zen.
Inork ikus ez zezakeen tokiraino eskalatzen zuen,
eta bere baitako munduan egoten zen zain, txirri-
nak jo arte. Sarritan, neska-mutilak zuhaizpean
elkartzen ziren, eta eskolako sekretuak entzuten
zituen. Egun batean, Daveren taldekideak aurkitu
zuten zigarro bat beren artean pasatzen zebiltzan.
Egun hartan, eztul asko entzun zituen. Ezin zuen
ulertu zigarroak zergatik ziren *cool*.



Eskolako txirrinak jotzean, salto batez jolastokia zeharkatu, eta justu ateak itxi aurretik sartzen zen barrura. Ezkutuan ibiltzea gogoko zuen, *rada-rraren-azpitik*, bere aitak esan ohi zuen gisan.

Ruthek ez zuen gorroto eskola, baina ez zuen maite. Eskola erresistentzia-proben sail bat zen:

1. proba:

Eserita
egotea saio
aspergarrietan;
esaterako,
Historia saioan.



2. proba:

Marrazketa saioan
Daveren taldekideren
batek gauzak ez
izorratzea, adibidez
norbaiten marrazkiak
sabaian ez itsastea
edo purpurina
ikaskideren baten
motxilan ez hustea.





3. proba:

Ogitartekoa bakean
jatea, artaburu
batek norbaiti
lapurtutako pate
sandwich nazkagarri
baten truke aldatu
behar izan gabe.


4. proba: Galdera gehiegiri ez
erantzutea, nahiz eta erantzuna
dakien bakarra izan, inork ez baititu
atsegin irakasleen kuttunak. Hori
begi-bistakoa zen Nancyk galdera
bakoitzean eskua altxatzen zuenean.



Nancyri ez zaio axola jendeak pentsatzea irakas-
learen kuttuna dela, baina bai axola zaio armairua
ireki eta Daveren taldeak ketchup botila osoa ba-
rruan hustu duela ikustea.



5. proba: Ez nabarmentzea, ezertan. Ez Jake bezala. Jakek ez zuen eskolan inoiz ezer esaten, beharrezkoa ez bazuen, baina ez zen Ruth bezala oharkabea pasatzen.



Davek ez zekien zer egin Jakerekin, ezerk ez baitzuen gogaitzen. Bost axola zitzaion “arraro” deitzen bazioten, edo “maritxu”, edo “uzkerrontzi”.



Jakeren irribarrea handitu eta handitu egiten zen, eta horrek bere onetik aterarazten zituen Daveren taldekideak. Batez ere, Ivan. Ivanek nola edo hala irribarre hori aurpegitik ezabatzeko moduren bat aurkitu beharra zuen.





2

GONBIDAPEN BAT, NAHASKETA ZINTAK ETA SEKRETU BAT

Egun batean, Ruth autobusera igo zen, ohi bezala. Amanda, beti bezala, Andy Armarda goraipatzen ari zen. Kawners andrearen autobusa errepi-detik atera zen katagorri bat ez zapaltzearren, eta kale kantoiko dendaren kartela eraman zuen aurretik. Autobusaren aurrealdean trabatuta gelditu zen, Alan Butsnarkek Kawners andereari autobusa gelditzeko eta kartela kentzeko erregutu zion arte, ezin baitzuen zarata gehiago jasan.



“Nork jarri ote du hau hemen!”, esan zuen Kawners andreak, harrituta.

Bitartean, Daveren taldekideak, tutuluez baliatuta, mundu guztiari paper bolatxoak jaurtitzen ari ziren. Amandak esan zuen salbu egoteko bezain urrun zeudela, baina Ruthek ziztada lerdetsu bat sumatu zuen lepoaren atzealdean.



“Ai!”, kexatu zen. “Zemina!”. Daveren taldekoak zeuden alderantz begiratu zuen; barrez ari ziren denak, Dave izan ezik. Jaiki, eta neskengana hurbildu zen, pasabidean barrena.

“Barkatu, Ruth”, esan zuen. “Ez zintudan zu jo nahi... Badakizu, nik... gogoko zaitut...”

“Bada, adierazteko modu xelebrea daukazu”, esan zuen Ruthek.

“Bai. Kar-kar”, egin zuen barre, baina Ruthek serio segitzen zuela ikustean barre egiteari utzi zion. “Aizu, joan gaitezen ostiralean film bat ikustera, eta hala ikusiko duzu gustuko zaitudala benetan. *Barragarri Birmoldatutako Robotak 4* ematen ari dira”.

Orduan Ruthek egin zuen barre.

“Txantxetan ari zara, ezta?”, galdegin zuen.

Egiaz, ez zuen Daverekin film bat ikustera joan nahi, baina haren aurpegi jatorra nola tristatzen



zen ikusi zuen. Ruthek Dave atsekabetu zuen, eta gaizki sentitu zen.

Kalabaza leuntzen saiatzeko, “Film hori kaka zaharra dela entzun dut”, gehitu zuen.

Baina beranduegi zen, Dave ez baitzen jada entzuten ari. Auto-busaren atzealderantz zihoan, bere aurpegiak trumoia zirudiela. Ruth eskola atarian egoteaz poztu zen, eta ziztuan jaitsi zen, Amandak adarra jo baino lehen.

Ruthek Historia saioa zeukan lehen eskola-orduan. Ez zitzaion axola, Senchurry jaunak istorio onak kontatzen baitzituen eta nota igotzeko etxe-ko lanetan marrazkiak egiten uzten baitzuen. Eseri bezain laster, Ravi paper artean murgilduta ikusi zuen.

“Zertan ari zara, Rav?”



“Nire liburua da. Motxilatik ateratzen ari nintzela, jausi, eta Ivanen oina jo du; sutan jarri da. Davek Trevorri eman dio liburua, azala urratzeko, eta Ivanek orri guztiak lurrean barreiatu ditu. Txukuntzen saiatzen ari naiz”, erantzun zuen Ravik.


“A! Ondo!”

Ravik galdetu zion, “Jake ikusi duzu?”

“Ez. Ez al da zure ondoan esertzen?”

“Bai. Beno... Ez kezkatu”.

Baina Ravi kezkatuta zegoen. Jakek ez zuen inoiz kale egiten Historia saioan. Txirrinak jo zuenean, Ravi atera zen inor baino lehen ikasgelatik, eta inork baino lehen aurkitu zuen Jake. Armairuen gelan zegoen, hormaren kontra eserita. Ivanek lortu zuen azkenean Jake zapuztea. Jakek silikonarekin itxita zeukan bere armairua, baina horrek ez zituen Ivanen asmoak geldiarazi: armairuaren atea bere lekutik atera eta 1980ko hamarkadako zinta guztiak hautsi zituen. Gelan barrena sakabanatuta zeuden, armiarma-sare erraldoi baten gisan.



Ravi erabat atsekabetu zen hori ikustean, bai baitzekien zintak Jakeren aitarenak zirela, eta Jakeren aita joana zen jada.

“Aterako gara honetatik, Jake, ez kezkatu”, esan zion Ravik, eta zinta guztiak pila batean bildu zituen.



“Nola? Artaburu horiek edozer egiteko gai dira. Nazkatu naiz!”, esan zuen Jakek, eta jolaslekurantz abiatu zen, haserre.

“Pentsatuko dugu zer edo zer, Jake. Ez gara haiek bezalakoak. Guk burua daukagu!”. Ravik hori esan, eta Daveren taldea nola kolpatu pentsatzen hasi zen.

Jake petril gainera igo, eta zerura begiratu zuen.

Ozen esatea debekaturata zeuzkan zenbait hitz esan zituen marmarka, eta gero, buru gainean zebilzkion txoriak ikusita, lasaitu egin zen.



Orduantxe ohartu zen
norbait negarrez ari zela.
Toby zen: futbol-zelaiko
ateko zutoinean eserita
zegoen, eta bere motxi-
lan arakatzen ari zen.



Jake harengana hurbil-
du, eta zer gertatzen zi-
tzaion galdetu zion.

“Ogitartekoarentzako dirua lapurtu didate. Beti
lapurtzen didate ogitartekoarentzako dirua. Ez dut
gogoratzen noiz jan nuen azken aldiz ogitartekoa
eskolan”.

“Zergatik ez duzu ogitartekoa etxetik ekartzen?”.

“Hori ere lapurtzen didate”.

“Gustuko ez badute, ez dizute lapurtuko. Zuri
gustatzen zaizun eta haiek gogoko ez duten zerbait
ekarri behar duzu”.

“Zer, baina?”

“Nik ikaragarri atsegin dut kakahuete krema,
entsalada eta piper saltsa”.

“Eeeeeei... Hori bai latza! Ziur hori ez dutela
lapurtuko!”.

Jakek ogitarteko zati bat atera zuen sakelatik, eta
erdia Tobyri eman zion. “Hartu zati bat”.

Tobyk apur bat hartu, eta zapore txarrari aurre
egiteko prest zegoen, baina asko-asko gustatu zi-
tzaion. “Gozo-gozoa da eta!”.



“Ixxxxxxooo! Ez haiei esan, edo haientzat nahi izango dute. Sekretua gorde dezakezu?”

“Bai. Bai, noski!”

“Ondo”, esan zuen Ravik, atzetik hurbilduta.
“Beste gauza bat esan nahi dizuet...”





3

BAT HIRUKOTEA: TOBY, RAVI ETA JAKE

Ruthek *zer edo zer* gertatu zela jakin zuen, eskola-ko hiru kiderengan aldaketak nabaritu baitzituen.

Toby beti saiatu izan zen bere burua bazterrik txikienean ezkutatzeko, edonon zegoela ere. Ruthek sarritan ikusten zuen begi gorri eta dardartiz, untxi gaixotu bat balitz bezala. Eta jatorduetan ez zuen inoiz ezer jaten. Baina orain Tobyk ez zuen hain itxura ahul eta beldurtia. Bai, inor bizikleten gordelekuaren atzean ezkutatu eta gainera salto egiten bazion, metro bateko jauzia egingo zuen airean. Ruthek Jake ikusi zuen hori bera egi-

ten, baina Toby bere onera etorri zenean, gogotik barre egin, eta Jakeri besoan kolpe bat eman zion. Ez oso gogor, egia da, baina Ruth harritu egin zen hark norbait ukitzen zuela ikusita.



Ravik beti bikain ateratzen zuen. Nancy ez bezala, isilik egoten zen ikasgelan, eta ez zuen inoiz eskurik altxatzen, baina irakasleak galdetzen zionean, beti zekien erantzuna. Eskola liburuan agertzen ez ziren gauzak ere bazekizkien. Orain, bikain ateratzen jarraitzen zuen, baina bazirudien bazue-



la bizitzarik liburuetatik at ere. Ruth zur eta lur gelditu zen jolaslekuan gaztainekin jolasten ikusi zuenean. Bere gaztainak erabat txikituta zeuden, baina behintzat jolastu egiten zen.

Jakek bere kasara zegoenean ematen zuen zoriontsuen, bere barne munduan zegoenean, entzungailuak belarrian. Orain, ordea, Ruthen Tobyekin ikusten zuen, edo Ravirekin, edo biekin. Ravi eta Toby astebetez kakahuete kremazko sandwichak jaten aritu ziren, eta otorduetan aurreztutako diruarekin mp3 entzungailu bat erosi zuten.



Jakek zintetan zeuzkan abesti guztiak jaitsi zituzten; entzungailuan gorde, eta Jakeri eman zioten. Bere musika berreskuratzeaz poztu egin zen, baina Ruthek ez zuen inoiz gehiago ikusi eskolan entzuten. Ruthek Toby eta Ravirekin hizketan ikusi zuen, inoiz baino gehiago.

Aldaketarik handiena, alai ziruditela hirurek. Oso-oso alai.

Egun batean, hiru mutilak txutxu-mutxuka zebiltzan iturri ondoan. Ruthen jakin-mina areagotuz joan zen, eta haiengana hurbildu zen.

“Zeri buruz ari zarete, mutilak?”

“Ezertaz ere ez”, esan zuen Jakek.

Ruthek Raviri begiratu zion, baina honek ere “Ezertaz ere ez” erantzun zion.

Tobyk ez zuen txintik esan.



“Tira... Beti txutxu-mutxuka zabiltzate, zuen sekretutxoekin. Eta badirudi Daveren taldeko norbait zuetako baten albora hurbiltzen den aldiro beste biak ezerezetik agertzen zaretela”.

“Konturatu zara”, esan zuen Ravik, urduri.

Ravik elkarren telefono zenbakiak dei azkarra egiteko moduan jartzeko proposatu zien Jake eta Tobyri. Horrela, botoi bakar bat ukituta laguntza eskatu ahal zuten.



“Itxaron”, esan zuen Jakek; beste biek bazter batera eraman, eta bilera bat egin zuten txutxu-mutxuka. Minutu pare batez eztabaidan ibili eta gero, berriro itzuli ziren.

“Ondo da; zu ere barruan zaude”, esan zuen Ravik.

“Zeren barruan?”, galdetu zuen Ruthek.

“Gure taldearekin bat egitera gonbidatzen zaitugu”, esan zuen Jakek.

“Zer talde da hori?”, galdetu zuen Ruthek.

“**BAT**: Bullying-aren Aurkako Taldea”.



“Niri ez didate bullyingik egiten”.

"Baina ez dituzu gogoko bullyinga egiten dutenak, ezta?"

“Ez, baina ez dut haien arreta piztu nahi. Zuek oraingoz lasai zabiltzate, baina Daveren taldeak zertan zabiltzaten jakin orduko, ahal duten guztia egingo dute geldiarazteko”.

“Horrexegatik behar ditugu kide gehiago”, esan zuen Tobyk.

“Begira, pozten naiz oraingoz ondo doakizuela-ko, baina ni ez naiz sartuko talde batean...”. Ruthek bere burua isilarazi zuen “galtzaileekin” esan baino lehen, baina mutilek ondo ulertu zuten bere kei-nua.

“Egintzazu nahi duzuna, Ruth”, esan zuen Ravik; biratu, eta alde egin zuen.

Jake eta Toby berarekin joan ziren.

Ruth gaizki samar sentitu zen.

